

## **HKEE-REN PRENTSA OHARRA, AZPEITIKO UDALAREN 2013-KO FISKALIZAZIO TXOSTENARI BURUZKOA.**

---

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak Azpeitiko Udalaren 2013ko ekitaldiari dagokion fiskalizazio txostena mamitu du. Txostena aho batez onetsi dute.

Udalaren, bere Toki Erakunde Autonomoen eta bere Sozietate Publikoaren kontuak besarkatzen dituen Kontu Orokorraren fiskalizazio txostenak legezketasunari buruzko alderdiak besarkatzen ditu aurrekontu, sarrera, langileria, diru-laguntza eta administrazioko kontratazioaren alorrean; baita kontuen aurkezpenarekin lotutako kontularitzako alderdiak ere.

Legezketasunaren atalean, Epaitegiak udalaren eta bere Erakunde Autonomoen jarduerari buruzko iritzi orokorra eman eta 2013ko ekitaldian indarreko araudia zuzentasunez bete dela adierazi du. Iritzi honi hainbat salbuespen egin zaizkio eta txostenean bertan daude jasoak.

Kontratazioaren atalean, HKEEk adierazi du Udalak eta Kirolaren Patronatua Erakunde Autonomoak zenbaitetan urratu egin dituztela administrazioko kontratazioa arautzen duten arauak. Hona hemen adierazgarrienak: obra kontratu bat aldatu da hasierako xedea zabalduz, legeriak agintzen duenaren aurka; bi obratan, araudiak agintzen duen publikotasuna urratu da eta horietako batek igoera esanguratsua izan du; 5 zerbitzu kontrataziotan publikotasun eta lehia printzipioak urratuz zuzeneko esleipena egin da.

Langileen alorrean gaurkotutako Lanpostu Zerrendarik ez izatea azpimarratu da eta ondarearen atalean, areto baten erosketan alde zuzenetik adituen txostenik ez izatea.

Udalaren eta bere erakunde autonomoen Kontu Orokorrari dagokionez, Epaitegiak aldeko iritzia plazaratu du horien aurkezpen eta edukiari dagokionez; ordea, Udalaren Kontu Orokorrean hiru akats azpimarratu ditu txostenean xehetasunez jaso direnak; hona hemen arrazoiak: oroitidazkian ez jakinaraztea hirigintzako jarduera bati dagokionez Auzitegi Gorenaren epai baten kontingentzia eta balizko ondorio ekonomikoa, ez eta etorkizuneko eraikuntza eskubideak erosteko eta hornidura gastuak finantzatzeko bi gastu konpromiso ere; eta hirigintzako aprobetxamendu bat

aurrekontuan ez erregistratu izana, nahiz Diruzaintza Geldikinean eraginik ez duen, atxikitako diru-sarrerak direlako.

Azpeitia Lantzen, SA sozietate publikoak legea betetzeari dagokionez, HKEEk uste du Sozietateak zuzentasunez bete duela 2013ko ekitaldian zehar ekonomia-finantza jarduera arautzen duen legezko arautegia.

Sozietate Publikoaren urteko kontuei buruzko iritzia aldekoa da, txostenean bertan jasotako ez-betetze bat salbuetsita.

Halaber, HKEEk barne kontrolari eta kudeaketa prozedurei buruzko hainbat irizpen mahairatu ditu aurrekontu, kontabilitate, langileria, kontratazio, transferentzia, diru-laguntza eta beste hainbat arlotan.

Azkenik, finantza egoerari dagokionez ondorioztatu da Udalak 2012 eta 2013ko ekitaldietan inbertsioak finantzatu dituela ekitaldi bakoitzean sortutako aurrezki garbi positiboarekin; gainera, zorpetze maila murriztu eta Diruzaintza Geldikinaren saldoa gehitu du.